

Docentiaz programarako ebaluatzaileen prestakuntza-tailerra

ECTS kreditu-kopurua: 1

Hartzaileak

Ikastaro hau zuzenduta dago irakaslana ebaluatzeko Docentiaz programan parte hartu eta Bikaina edota Gain-gainekoa emaitza lortu duten UPV/EHUko irakasleei; zehazkiago, programa horretako ebaluatzaileen poltsetan hurrengo deialdietan parte izan nahi dutenei. Horretarako, baldintza hauek bete behar dira: arduraldi osoko irakasle iraunkorra izatea eta Docentiaz programako aurreko deialdietan Irakaslearen Txostenean emaitza altua (≥ 90 puntu) lortu izana.

Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

DOCENTIAZ programa irakasleen jarduera ebaluatzeko UPV/EHUko sistema da. Kalitate Agentziek gero eta garrantzi handiago ematen diote ebaluazio eredu horri, bai Graduen Akreditazioa egiaztatzeko, bai garapen akademikoan aurrera egiteko. Hurrengo deialdietan ebaluatzaile berriak beharko direlakoan, ebaluatzaileen poltsa irekiko du UPV/EHUko Ebaluazio Zerbitzuak. Poltsa horretan onartua izateko, ezinbesteko baldintza da ikastaro honen bidez eskuratu daitekeen egiaztagiriaren jabe izatea.

Ikastaroan lortzeko gaitasunak

1. Docentiaz programako dimentsioen barneko egitura sakonki ulertzea.
2. Programako atal guztien ezaugarri operatiboak ezagutzea.
3. Eskaera-ereduak ebaluatzea, ebaluazio-protokoloan ezarritako irizpideak jarraituz eta baliabide informatikoak erabiliz.
4. Docentiaz programaren txostena idaztea, jarrera etikoa izanik eta txosten honek helburu hezitzailea duela kontuan hartuz.

Metodologia

Tailerrak izaera aktiboa eta dinamikoa izango du, eta bertan, hausnarketaren bidez, ebaluazio espedienteak aztertu eta ebaluatzeko jarduerak egingo dira. Online emango da ikastaroa, eGelapi plataforman.

Edukiak

- Docentiaz programa: oinarrizko ezaugarriak eta helburuak.
- Ebaluazioaren dimentsioak eta informazio-iturriak.
- Prozeduraren faseak: eskaera, batzordeen antolakuntza, ebaluazioa eta amaierako txostena igortzea.
- Ebaluazio-protokoloa: irizpideak eta ebaluazio kualitatibo zein kuantitatiboa.
- Txostenak idaztea.

Zereginak

Gaitasuna	Zeregin mota	Partaideen ordu-kopurua
1, 2	- Azalpen-klasearen konexioa eta segimendua (Docentiaz programaren ikuspegi orokorra: helburuak, prozesua, dokumentazioa, protokoloa...).	3 P
3	- Docentiaz programaren dimentsioen balorazio egokia, ebidentzietan oinarrituta eta balorazioak arrazoituta, programaren irizpide esplizituetan oinarrituta (parte-hartzaileek alde aurretik landutako espediente baten azterketa).	3 P + 10 EP
4	- Docentiaz programaren txostena egin eta idaztea (parte hartzaileek alde aurretik ebaluatutako espediente baten azterketa eta azken zeregin entregagarria: espediente baten txosten kualitatibo eta kuantitatiboaren ebaluazioa eta idazketa).	4 P + 5 EP

P: Presentziala
EP: Ez presentziala

Ebaluazioa / Akreditazioa

Ziurtagiria lortu ahal izateko hurrengo baldintzak bete behar dira:

- Konektatzea ikastarora, jarraitzea eta saioetan parte hartzea.
- Tailerlean eskatutako lanak ematea.

Gaitasunak	Ebaluazio-tresna	Ebaluazio-irizpideak	Ehunekoak
1, 2, 3	Dimentsioak ebaluatzeko taula	Ezarritako irizpideetara egokitzea. Puntu-kopuruak arrazoitzea eta justifikatzea	%70
4	Eskaera baten ebaluazioaren balorazio-txostena	- Koherentzia - Egokitzapena - Idazkera argia, errespetuzkoa eta etikoa - Prestakuntzarako eta aholkurako helburua	%30

Datuak

Iraupena

10 ordu online sinkronoa eta 15 ordu lan autonomoa.

Datak

2025eko otsailaren 27a, eta martxoaren 6 eta 13a.

Ordutegia

Otsailak 27 eta martxoak 6: 15:00 – 18:00

Martxoak 13: 15:00 – 19:00

Tokia

Online, eGelapi erabiliz. Onartuak diren pertsoneri jakinaraziko zaie.

Partaide-kopurua

Gehienez 15

Hizkuntza

Euskara

Campusa

eCampus

Irakasleak:

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea (IEUB)

Izena emateko epea:

Izena emateko epea zabalik egongo da prestakuntza-eskaintza argitaratu eta astebetera.

Izena emateko baldintzak eta matrikula baliogabetzea

Izena ematea pertsonalaren atariaren bidez egingo da.

Arduraldi osoko irakasle iraunkorra izatea eta Docentiaz programako aurreko deialdietan Irakaslearen Txostenean emaitza altua (≥ 90 puntu) lortu izana. Onartzeko prozesuan, Irakaslearen Irakas-Jardueraz Ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren txostenetan azken urteetan lortutako emaitzak eta euskararen eta ingelesaren ezagutza kontuan hartuko dira, eta, plazak esleitzean, jakintza arloen arteko oreka bermatuko da.

Tailerrera joan ezin bada, 72 ordu lehenago jakinaraztea eskatzen da, plazarik gabe behin-behinean geratu den beste pertsona bati eskaintzeko. Horrela egin ezean, hurrengo IUPRE ikastaroen deialdian ezin izango da parte hartu.